

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2009/11/19 Arratsaldeko 18.00-19.30</p>	
-----------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

Gaurkoa, 2009ko Eskualdeko Agenda 21eko Ingurumen lan-taldearen lehenengo bilera izan da. Ekintza planaren berrikuspena arlo teknikotik landu da eta bilera honetan ekintza plan honetako 4 gai aztertu dira. Ondorengo bileretan, batean gelditzen diren beste 4 gaiak landuko dira eta bestean, ekintza plan berri honetako ekintzak lehenengo egingo dira.

Honenbestez, lanean hasi gara!

Honako hauek bildu gara

Danel Etxeberria (Itsasondoko Udala), Xabier Dorronsoro (Zeraingo Udala), Patxi Plazaola (Beasaingo Udala), Iñaki Ibañez (BAREAK merkatari elkarteak), Angelika Moreno (Ordiziarra), Iker Galparsoro eta Iker Azurmendi (Goieki) eta Leire Garmendia eta Rosa Aurkia (LAIA S.Coop.).

Gaurko bileraren egitura

Gaurko bilera 2 atal nagusitan banatu dugu:

1. Ekintza planaren berrikuspena eta bileren banaketa.
2. Ekintza planeko 4 gaien azterketa.

Lanarekin hasiz...

1. Ekintza planaren berrikuspena eta bileren banaketa

Goiekiko eskualdeko ekintza plana 2005. urtean onartu zen. Ekintza planaren garapena eta helburu lortzea ezagutzearren Gipuzkoako Foru Aldundiko ebaluaketa programan parte hartu zen. Azterketa honen arabera ekintza planaren eguneraketaren beharra somatu da. Ekintza planaren berrikuspena teknikoki egin da eta orain hainbat bileretan ekintza plan hau landu egingo da. Aurreikusitako diren bilerak:

- Azaroak 19: mugikortasuna, lurralde antolamendua, ingurumen kalitatea eta baliabideen kudeaketa.
- Abenduak 3: ura, energia, hondakinak eta partehartzea.
- Urtarrilak 21: ekintza planeko ekintzen lehentzea.

2. Ekintza planeko 4 gaien azterketa

Taldetan banatzea aurreikusita bazegoen ere jende gutxi azalduenez, talde bakarrean gai guztiak landu ditugu.

	<p>Eskualdeko Agenda 21</p> <p>1 / 4</p>	
--	-------------------------------------------------	--

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2009/11/19 Arratsaldeko 18.00-19.30</p>	
-----------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

MUGIKORTASUNA

1. *PROGRAMA: Mugikortasunari heldu bere fronte ezberdinetan tendentzian aldaketa bat sor dadin.*

Eskualdeko mugikortasun planean autobus zerbitzuaren azterketa bat egin da, Diputazioa eta Goierrialdea arteko kontzesioa aurten bukatzen zelako. Azterketa honetan, autobus lineatan moldaketa batzuk egitea proposatzen da, adibidez, herri txikitako lineak kendu egingo lirateke gaur egungo zerbitzuen ordez "eskaripeko" zerbitzua jarriko litzateke. Gainontzeko lineak tren zerbitzuen ordutegiekin koordinaturik egongo lirateke eta Lazkao, Beasain eta Ordiziako gunek 30 minuturo autobus zerbitzuen bitartez loturik egongo lirateke.

Zeraingo ordezkariak "eskaripeko" zerbitzuaren aldekoak direla komentatzen du eta zerbitzu hau inguruko udalerrietako botiketarik medikamentuak eramateko ere erabili daitekeela komentatzen du.

Mugikortasun plan honetan Indar eta ArcelorMittal enpresetako langileen mugikortasun azterketa bat ere egin da. Azterketatik ateratako ekintzak ezin izan dira martxan jarri krisiaren ondorioz.

Mugikortasun plan hau Diputazioan aurkeztu da eta orain lizitazioa atera zai gaude.

Bestalde, eskualdeko mugikortasun planaren amaieran Udaletatik eta Foru Aldunditik proposatu zitzaion bezala, eskoletako garraioa aztertzen hasi da Goieki. Azterketa honen helburua eskola ezberdinen arteko garraio sistemak aztertu eta hauek era eraginkorrago eta koordinatuago batean martxan jartzea ahalbideratuko litzuketen ekintzak identifikatzea da (autobusak konpartituz,...).

2. *PROGRAMA: Herrien arteko kanpo konexio sare bat sortzen joatea, pasealeku eta bidegorrien bidez.*

Orkli enpresan bizikleten alokairuko zerbitzua jartzeko asmoa dago, bizikletak uzteko leku bat enpresan egongo da eta bestea Ordizian jarri nahi dute.

Bidegorriak egitea oso ondo dago eta hau egiten jarraitu behar da baina oinezkoentzat bide seguru batzuk ere egin behar dira. Oinezko bide hauei lehentasuna eman behar zaiela komentatzen da, jende asko herri arteko loturak oinez egiten baititu.

Bidegorriak egiteko garaian Diputazioa eta udalerrien arteko koordinazio falta bat dago. Udalerriek eginiko alegazioak askotan ez dira kontutan hartzen. Diputazioak herri arteko bidegorriak diseinatuta dauzka, baina herri bakoitzak herri barrukoa nahi duen bezala bideratzen du.

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2009/11/19 Arratsaldeko 18.00-19.30</p>	
-----------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

LURRALDE ANTOLAMENDUA

1. *PROGRAMA: Eskualdeko esfortzuak batu arazo orokorrei erantzuna emateko.*

Itsasondon arau subsidiarioak berriro egin dituzte eta lurzoru ez urbanizagarria ere antolatatu dute. Arau hauek Diputazioan daude baina hauen onarketan arazo batzuk daude.

Baserriak hutsik daude eta hauek bizitza bat baino gehiagotan banatzeko aukera udalari askotan ematen bada ere, "Propiedad horizontal" delako legearekin topo egiten dute, askotan elkarbizitza zailduz. Egokiena udalaren babesean baserri handi hauek hartu eta 3-4 familientzako komunitateak (etxebizitza sozialak) sortzea litzateke.

2. *PROGRAMA: Bizilagunak diren eskualdeekin harreman estrategia bat diseinatzea: Urola Garaia, Tolosaldea.*

Goierriko LZPa orain hilabete batzuk onartu zen.

Beasain-Ordizia-Lazkao arteko komunikazio eredu eta herri-industria konbibentzia modeloa mantentzea egokia litzatekeela aipatu da, gaur egun eredugarria izaten ari baita hainbat tokitan.

BALIABIDEEN KUDEAKETA

1. *PROGRAMA: Baliabide naturalen kudeaketa iraunkor bat sustatu*

Ordiziako Urdaneta ikastetxean orain arte bertako elikagaiak erabiltzen zituzten janariak prestatzeko baina orain Eusko Jaurlaritzak hau aldatu egin du eta enpresa azpikontratatu baten bidez erosten dute janaria. Aldiz, Ordiziako ikastolan bertako elikagaiak erabiltzen dira bazkariak prestatzeko.

Eskoletan bakarrik ez da sustatu behar elikagai mota hau, etxean ere egin beharreko zerbait da.

2. *PROGRAMA: Ingurune naturalen kudeaketa iraunkor bat bultzatu eta babestu*

Itsasondon natur ondareeen gaineko azterketa bat egin dute GIS programaren bidez.

6.2.3. ekintza egiten dela komentatzen da. Aizkorriko parke naturalean udalen partehartze aktibo bat dago.

6.2.4. ekintzari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta mendi federazioak ibilbide batzuk seinalizatu behar dituzte eta hauetako batzuk tematikoak dira, adibidez, Aralar eta Aizkorri arteko Artzai ibilbidea. Beste ibilbideak seinalizatzeko Udal bakoitzak aukeratu behar ditu zeintzuk egin eta ondoren hauek mantendu egin beharko ditu. Beraz, ekintza hau ere egiten ari dira.

	<p>Eskualdeko Agenda 21</p> <p>3 / 4</p>	
--	-------------------------------------------------	--

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2009/11/19 Arratsaldeko 18.00-19.30</p>	
-----------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------

Bestetik, gai honetan Idiazabalen eta Zerainen hainbat pausu ematen ari dira,... Iazpiko kasua ere eredugarria da, baina terreno hauek garbitzeko ez dute ganadurik.

3. *PROGRAMA: Gune degradatuen berriztapena sustatu*
4. *PROGRAMA: Sozialki ondare naturala balorizatu*

INGURUMEN KALITATEA

1. *PROGRAMA: Kalitate atmosferikoaren kontrola burutu*

Airearen kalitateko estazioa Beasainen dago kokatuta, ia egunero iristen dira estazio honetako datuak Beasaingo Udalera eta Beasaingo web orrialdean zintzilikatzen dira. Datu hauek beti aurreko egunetakoak izaten dira.

Industria isurpenen inguruko segimendua egitea oso zaila dela komentatzen da, datu faltagatik. Goiekiko arduradunak, Goierriko enpresa industrial gehienen aktibitate eta irekiera lizentziekiko egoeraren inguruko datuak dituztela komentatzen dute. Ala ere enpresa hauen emisio fokuen egoeraren segimendua egitea zaila dela komentatzen dute.

Babes zibiletik aire kutsadura dagoenean protokolo bat zehaztuta dagoela ere aipatu da.

2. *PROGRAMA: Eskualdeko eta tokiko administrazio eta instalakuntzen kudeaketan ingurumen irizpideak txertatu*

Beasain, Ordizia eta Lazkaoko polikiroldegiekin elkarlanean ingurumen diagnostikoak osatu dira. Bertan ura, energia,... gaiak aztertu eta hauen eragina gutxitzeko zenbait ekintza proposatu dira.